

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inazio Zubiarrain Otxotorena

*Hernani,
Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea



Biografia



Epeleko Telleri baserrian jaio zen. Ama Epelekoa zuen eta aita 9 urterekin Beasaindik Hernanira etorritakoa. Zortzi senideren artean gazteena zen bera. Gaztetxo zela morroi egon zen Ziordiko artzain batekin. Mendian lanean ikasi zuen, pinu aldatzen, txondorrak egiten... eta gero "kurtidoran" sartu zen lanean. Azkenik, elektrokimikan egin zuen lan. Hiru anai zaharrenak gerrara joan behar izan zuten soldadu eta aita Lasartera eraman zuten Belodromoan lan egitera.

Zintak

HER-052

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-07-19
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

HER-062

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-07-19
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Abaurregainako ijitoarenak

- **Erref:** HER-052/002
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:01:47. **Bukatu:** 00:03:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldaduskan zebilela, ijito batekin egin zuten topo, Abaurregainan. Ijitoak

Hernani ongi ezagutzen zuela esan zien, Gerra Zibilean larri asko ibilita baitzegoen Xoxokan, Santa Barbaratik kanoikadaka hartu zituzten batean.</p>

2. Kopeta erdian tiro

- **Erref:** HER-052/003
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:03:44. **Bukatu:** 00:05:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Hernaniar talde bat bando nazionaleko batzuen erasoari eusten ari omen zen, herritik gertu. Karlos izeneko mutil bat babeslekutik irten eta bala sartu omen zioten kopetan.</p>

3. Telleri baserria

- **Erref:** HER-052/005
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:08:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Telleri baserria, Inazioren jaiotetxea, teila fabrika baten ondoan zegoen. Gaur egun erreka pasatzen da handik.

4. Telleriko taberna

- **Erref:** HER-052/006
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:08:31. **Bukatu:** 00:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Inazioren jaiotetxe ondoan teila fabrika zegoen, eta hari itsatsita, egurrezko beste etxetxo bat: taberna. Han emakume bat aritzen omen zen fin asko lanean, eta aurreztutako diruarekin beste taberna bat egin omen zuen gero, Hirubidetan, teila fabrika itxi zutenean.</p>

5. Txanelak Urumean

- **Erref:** HER-052/007
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:09:56. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak

Laburpena:

Telleri aurretik igarotzen zen erreka gaur dakarren ur kopurua baino lau aldiz gehiago ekartzen omen zuen lehen, Inaziok dioenez, eta gabarra edo txanela handi batzuk ibiltzen omen ziren errekan gora eta behera.

6. Hernaniko errotak itxita

- **Erref:** HER-052/009
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:16:41. **Bukatu:** 00:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean Francok errazionamendua ezarri zuen eta hainbat errota ixteko agindua eman. Inaziok dioenez, Hernanin guztiak itxi zituzten. Jendea Nafarroako errotetara joaten hasi zen irina bila. Bere aitak behinola ibili zituen ibilerak kontatzen ditu.</p>

7. Xardiaren bertsoa Pedro Santa Kruzi

- **Erref:** HER-052/012
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:24:29. **Bukatu:** 00:26:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Goizuetako Xardia bertsolariak Andoaindik Ereñozura bizitzera etorria zen Pedro Santa Kruz bertsolariari kantatutako bertsoa, Fagollaga tabernan.</p>

8. Goizuetako jaiak

- **Erref:** HER-052/013
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:26:45. **Bukatu:** 00:28:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Gogoan du Inaziok, gaztetan, nola jendea bi, hiru, edo lau egun bertan egiteko asmoz joan ohi zen Goizuetara, jaietara. Izan ere, lehen ez baitzen joan-etorri azkarrak egiteko modurik, gaur egun bezala.

9. Ganbaran lo

- **Erref:** HER-052/014
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:28:09. **Bukatu:** 00:29:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Goizuetako jaietara joan eta etxeren bat hutsik baldiz bazen, ganbarara igo eta hantxe egingo zuen lo hainbatek. Iratzearen gainean ongi egiten omen da lo; belarrak, aldiz, buruko mina ematen omen du.

10. Sei txerri kamioira nola igo

- **Erref:** HER-052/016
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:30:34. **Bukatu:** 00:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Zarauzko granja bateko morroiak sei txerri kamioira nola igoarazi zituen.

11. Txerria oilo-zirin zale amorratua omen

- **Erref:** HER-052/017
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:47. **Bukatu:** 00:34:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Teruel inguruko oilo granja handi batean txerriak askatzen zituzten lurreko oilo-zirinak garbi zitzaten.

12. Txerriak libre hazten

- **Erref:** HER-052/018
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:34:17. **Bukatu:** 00:35:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Garai batean txerriak libre hazten ziren, baserri inguruetakoa hariztietako ezkurak janez.

13. Esne partitzen, astoa lagun

- **Erref:** HER-052/021
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:38:29. **Bukatu:** 00:40:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Esne partitzen ibilitakoa da Inazio, bere inguruko beste hainbat bezala. Inazioren izeba, esaterako, Donostiaraino joaten zen esnea saltzera, tranbia hartuta.

14. Asto plaza

- **Erref:** HER-052/022
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:40:30. **Bukatu:** 00:41:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Hernanin feria egiten zen plazari 'asto plaza' esaten ziotela kontatzen du Inaziok eta bertan sortzen zen giroaren berri ematen du.</p>

15. Hernaniko feria

- **Erref:** HER-052/023
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:42:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Jende asko biltzen zen Hernaniko feriara, eta gehien gehienak bazkalostean etxerantz abiatzen ziren. Baina bazen bertan geratu eta parranda egitea gustatzen zitzaionik ere.</p>

16. Okendo Beltza

- **Erref:** HER-052/027
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:46:27. **Bukatu:** 00:48:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Okendo Beltza esaten zioten batek gizon bat hil omen zuen. Lekuko batek ikusi egin zuen, ordea, eta Okendo Beltzak mehatxatu egin zion arren, lekukoak poliziari parte eman eta atxilotu egin zuten hiltzailea.</p>

17. 'Txirrita'k hiltzaile bati kantatuak

- **Erref:** HER-052/028

- **Iraupena:** 0:05:38. **Hasi:** 00:48:17. **Bukatu:** 00:53:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Azken gerra karlistan frontean ibilitako gizon batek artzain bat hil omen zuen tiroz. Urteak joan eta jai arratsalde batean, Fagollagan, hiltzaile hari berari bi bertso kantatu omen zizkion 'Txirrita' bertsolariak, negarrez utzi zuten.</p>

18. Paulo Zubiarrain Otxotorena bertsolaria

- **Erref:** HER-052/029
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:53:55. **Bukatu:** 00:54:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Paulo Zubiarrain Otxotorena bertsolaria (Hernani, Gipuzkoa, 1912 - 2002ko apirilaren 4a), izengoitiz Paulo Txikia edo Hernani Txikia, Inazioren anaia zen. Plazaz plaza ibili izan zen, Joxe Joakin Mitxelenarekin, Baztan eta Bortzirietan, batez ere. Beste anaia bertsolari bat ere badu.</p>

19. Zugastitarrak, txirrindulari bikainak

- **Erref:** HER-052/030
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:54:34. **Bukatu:** 00:56:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Hernaniko Pikoetxeberri baserrikoak ziren Zugastitarrak, txirrindulariak denak. Inaziok dio Angel Zugasti zela onena, baina Pedro Zugastik irabazi zuen lehendabiziko Arrateko igoera. Arreba ere txirrindulari bikaina omen zuten.</p>

20. Lehendabiziko bizikleta

- **Erref:** HER-052/031
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:56:32. **Bukatu:** 00:57:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Inaziok bazituen lanean urte batzuk eginak bere lehen bizikleta erosteko aukera izan zuenerako.

21. "Heriotzaren aldapa"

- **Erref:** HER-052/032
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:57:36. **Bukatu:** 00:59:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Inazioren aita Batallón de Trabajadores-en ibiliarazi zuten, Lasarten. Egunero kamioian ibiltzen omen zituzten, eta "heriotzaren aldapa" delakotik pasatzerakoan, hildakoren bat edo beste ikusten zuten goizero.

22. Lasarte aireportu

- **Erref:** HER-052/033
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:59:13. **Bukatu:** 01:00:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerra Zibilean Hegazkinak Lasarten aireratu eta lurreratzen ziren. Batallón de trabajadoresekoei eta preso hartutakoei aitzur eta palaz hango lurrak berdindu arazi eta halako lanak eginarazten zizkieten.</p>

23. Gauero presoren bat falta

- **Erref:** HER-052/034
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:00:08. **Bukatu:** 01:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Inazioren aita Batallón de Trabajadores-ekin lan egitera eramaten zuten goizero Lasartera, eta han, Inaziok dioenez, gauero fusilatzen omen zuten preso hartuta zituztenen artetik bateren bat. Hori ikusita, preso batek ihes egitea erabaki zuen, eta baita lortu ere. Ordainetan, bando nazionalekoek gau horretan bertan guardia egiten jarria zuten presoak akabatu omen zuten, ordea.</p>

24. Lekeitioko apaiza Hernanin fusilatu

- **Erref:** HER-052/035
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:02:57. **Bukatu:** 01:04:10

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gurdian zaborra garraiatzen ibiltzen zen pertsonak berak hartzen omen zituen fusilatutako gorpuak eta Hernaniko kanposantura eramaten. Lekeitioko apaiz abertzale bat ere Hernanin hil zutela dio Inaziok.

25. Borreroarekin karta jokoan

- **Erref:** HER-052/037
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 01:04:49. **Bukatu:** 01:08:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bera fusilatu nahi izan zuten hiru lagunekin karta jokoan aritu zen haren pasadizoa.

26. Preso nahi ez eta ihes

- **Erref:** HER-052/039
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:15:52. **Bukatu:** 01:19:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Inazioren anaia zaharrenaren gora beherak frontean eta alemanek Gernika bonbardatu eta gero ihes eginda ibili zeneko kontaketa.</p>

27. Edozein umiltzeko moduko garaiak

- **Erref:** HER-052/041
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:22:00. **Bukatu:** 01:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bando nazionalaren jazarpena batetik eta gosetea bestetik, gerrak gizartearen zati handiena burumakur utzi zuela dio Inaziok.

28. Euskara debekatua eta errotak itxita

- **Erref:** HER-062/001
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:18

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Frankismoan euskara debekatua zegoen. Errotak itxi egin zituzten. Nafarroan ogia lehenago hasi omen zen.

29. Biriketako gaitzarekin hil ala bizi

- **Erref:** HER-062/002
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:01:18. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Inazio hilabete inguru besterik ez zen eskolan ibili. Biriketako gaitza harrapatu zuen eta hil edo bizi egon zen. Aitak nola lagundu zion kontatzen du. Sendatu zenean, Ziordiana bidali zuten, klima aldatzeagatik.

30. Ziordian patata biltzen eta enborrak garraiatzen

- **Erref:** HER-062/003
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:06:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Ziordian bi urte egin zituen. Patata Olazagutin izaten zen, biltegi handi batean. Neguan enborrak jeisten zituzten Urbasatik idiekin. Trenbideko trabiesak eskuz egiten zituzten beste batzuek enbor haiekin.

31. Trontzak oholetarako

- **Erref:** HER-062/004
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Trontzak erabiltzen ziren oholak egiteko. Harpana gauza bera zen.

32. Urdaburu ingurua txondorrez betea

- **Erref:** HER-062/005
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:09:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Hamasei urte zituenean, Urdaburu inguruko mendietan txondorrak sutan egoten ziren. Ikatza egiten zen asko han. Egurra bizkarka ekartzen zuten. Lehendabizi atxurrarekin plaza egiten zuten. Mandoarekin ateratzen zuten ikatza.

33. Mitxelena bertsolaria San Antoniotan

- **Erref:** HER-062/006
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:09:26. **Bukatu:** 00:11:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Pinua aldatzen lan egin zuen Ziordiatik etorritakoan. Soldata ona izaten zuen. San Antonioetan zikiroa jaten zuten eta Mitxelena bertsolariak beraienean bazkaltzen zuen. Inazioren anaiari "Pablo Txiki" esaten zioten.

34. San Antonio festak nolakoak ziren

- **Erref:** HER-062/007
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:11:39. **Bukatu:** 00:13:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Antonio festak. Soinua, lasterketa, zaku lasterketak, sokatira, bazkaria, afaria... Ilunabarrean etxeratu egin behar izaten zuten. Tabernak gauerdian itxi egiten zituzten, alkateak hala aginduta.

35. Apaiza nagusi herrian

- **Erref:** HER-062/008
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:13:57. **Bukatu:** 00:16:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak iluntzerako denak etxean izaten ziren. Apaizak indarrrik handiena zuen herrian, Francoren ondoren. Apaizak neskekin harremanak izaten zituztela esaten du.

36. Don Juan apaizaren ibilerak

- **Erref:** HER-062/009
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Don Juan apaizaren harremanak neskekin. Herritarrek eginahalak egin zituzten apaiza Ereinozutik bidaltzeko.

37. Apaizen indarra eta kontrola

- **Erref:** HER-062/010
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaizek eta fraideek sermoi beldurgarriak egiten zituzten. Konfesatutakoan txartela ematen zuten, konfesatugabeak agerian geratzen ziren jaunartzerakoan. "Paskuazkua" esaten zioten. Pasadizo bat kontatzen du.

38. Larrua ontzeko prozesua

- **Erref:** HER-062/013
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:25:13. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Lan zikina zen larruak ontzea. Jantziak eta prozesua kontatzen ditu. Errazionamendua izaten zen eta estraperloan ibiltzen ziren larrua ondu ahal izateko. Urreak beste balio zuen larruak orduan.

39. Behiaren larrua

- **Erref:** HER-062/014
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Astigarragako geltokian bagoi bete larru hustu zuten estraperloan. Behiaren larrua erabiltzen zuten. Bufaloaren larrua ere ekarri omen zuten noizbait. Zapatak, lantegietako motorren uhalak... denetarako erabiltzen zen.

40. Larrua uhaletarako eta zapatak egiteko

- **Erref:** HER-062/015
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:33:27. **Bukatu:** 00:35:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Larru zatiei erdiko lauki handia moztu eta motorren uhaletarako erabiltzen ziren. Gainontzeko pusketak zapatak egiteko erabiltzen ziren. Abarkak ere egiten zituzten. Abarketarako gurpil-azala ere erabiltzen zen eta oso gogorrak izaten ziren.

41. Hizkerarik garbiena Hernanikoa

- **Erref:** HER-062/016
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:35:57. **Bukatu:** 00:38:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Hernanitik Tolosa bitarte, antzeko hizkera omen da. Inguruko euskalkiak aipatzen ditu. Hizkera garbiena beraiena omen da.

42. Aitonaren ibilerak karlistadetan

- **Erref:** HER-062/021
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:43:46. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Karlistadetan, bere aitona eta beste bi anai Elamara joan omen ziren ihesi. Oihartzundik kapitaina bila etorri zitzaionean, Elamara bidali zuten. Aitona haiekin joan omen zen azkenean. Kapiteinak eskatuta Elaman emakume bat eta ume txiki bat ezkutatu zituen. Urte asko pasa eta gero, bisitan etorri omen zitzaizkion aitonari Epelera.

43. Sorginari aurre egiteko, erriflea

- **Erref:** HER-062/022
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:49:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Sorgina ateratzen zela eta, Inazioren aitonak erriflea atera eta uxatu omen zuen.

44. Piztien beldur

- **Erref:** HER-062/023
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:49:09. **Bukatu:** 00:50:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Zenbait bidetan ibiltzeko beldurrez izaten zen jendea. Piztien begiak izaten omen dira askotan.

45. Mugalarien hilotzak

- **Erref:** HER-062/028
- **Iraupena:** 0:05:23. **Hasi:** 01:03:23. **Bukatu:** 01:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Pasadizo bat kontatzen du, mediku batek muga pasa nahi izan zuenekoa. Mugalarien hilotzak topatu zituzten hainbat lekutan.

46. Trabuko eta Berdabio

- **Erref:** HER-062/029
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:08:46. **Bukatu:** 01:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Trabuko eta Berdabio. Bertso bat erreztatzen du.

Transkripzioa

- Berdabion aitzia ez al dezu zuk? Dirua itten zuna, Berdabio. - Trabuko? - Trabukok galdu zun hua. - Bai, hoi da, hoi da. - Berdabio afusilatu in zuen. - Hoi da. Arrazoi dezu. - Bai; Trabuko beak gizona hil ta errotazpin Elaman sartu [izan] lehen. Ta Berdabiok jakin harek gizona nola sartua zun. Gero, afusilatzeko zeola, Berdabiok &bertsotan puxkat eitten zuna izango zan ta& harek bertsok jarri ba hari: Aizak Trabuko, ez al dakik hik zer egin yuken Elaman: kulpik gabeko gizona hilda errotazpira eraman. Orain bezela gizon jatorrak izan bazian Lesakan, ni ba& leno egon bihauken ni orain nagon atakan. Ta harek bertsok jarri. Ordun... ordun&e bazian ta oain&e bai ta geo&re bai ta geoz ta haundiyo. - Hoixe. Holaxe. Holaxe geldittuko da. - Bai.

47. Txirritaren bertso batzuk

- **Erref:** HER-062/032
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:12:51. **Bukatu:** 01:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak

Laburpena:

Txirritaren bertso batzuk errezitatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com